

# KULTURKRITIKA


» LIBURUA

## Orrialderik onenetakoak



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



### Hodei berdeak

JON ALONSO

Susa, 2003

Jon Alonsoren hitz-lauzko lana –bere adar anitzetan: narrazio, nobela, saiakera, horien arteko nahasketa posible guztiak– balio segurua dela badiot, ez naiz orain arte esan gabeko ezer esaten ari. Besterik da hitz-lauzko lan horren barne hierarkizazioa aldakorra izan daitekeela esatea. Esan nahi dut, bere garaian tarte honetara ekarri banuen *Camembert helburu*, eta aitortu banuen “aldarrikatu beharreko liburua” dela, gaur ekarri nahiko nuke *Hodei berdeak*, Jon Alonsoren orrialderik onenetakoak bertan daudelako ustean. Noski, hau ez da konpetizio bat, ez bada, orrialde bikainen artean aukeratu ahal izanik, irakurlearentzako pagotxa sekulakoa.

*Hodei berdeak*, beraz, liburu interesgarria ikuspuntu askotatik, hasteko planteatzen duen jolas metaliterarioarengatik: nobela gisa hasten da kontakizuna –“nobela hori, izan, bada. Edo nobela itxura duen zerbait, behintzat, osorik eta erabat bukatu ez dagoen arren”–; baina nobela horren gaineko oharrak irakurtzen hasiko gara halako batean –“sasi-nobela horren osagarri litezkeen ohar edo zehaztapen hauek idatzi baitituz”–. Azkenerako, ustez lau eskutara idatzitako liburu bat irakurtzen ari garela jabetzeko: “Nire lehengusu Xabierrek idatzi zuen nobela bukatugabearen zirriborroa, baita nik berarekin proiektu honetan ibili nintzen denboran –gehi bere zirriborroa leituta burura etorri zaizkidanak–, idatzi ditudan ohar guztiak ere”.

*Hodei berdeak*, beraz, liburu interesgarria ez bakarrik egituragatik, berdin harrapatzen dituen kontuengatik. Kokatzeko, kronologikoki, “etorri zen Iruñeko Aberri Eguna,

Vuelta a España-n jarritako lehergailua, salbuespen-egoera. Etxebarrieta hil zuten”. Eta politikoki, bada, batetik, geopolitika kontuak, hala nola yankeekiko harremana –“Francoren Espainia nola pasatu zen etsai izatetik aliatu estrategiko garrantzitsua izatera”–, eta zehatzago EAJk izan zuena –“sozio erabilgarriak izan ziren garai batez”–; baina interesgarria, batez ere, indarkeriaren gaineko dilemaz ari delako, eta gurean sentsibilitate diferentek borroka armatuarekiko hartu zuten jarreraz: “EAJk borroka armatuaren justifikaziorik onartzen ez duen honetan, bere jarrera beti ‘baketsua’ izan dela dioen honetan, garrantzizkoa da gogoraraztea ez zela hori bere jarrera 1968-69 urteetan”. Tesi orokorra izanik gurea ez dela zeozer originala, nabarmenduz “gure pieza-izaera, gure txikitetasuna, gure nazioartekotasuna”, eta berriz ekarriz ideia higitu baina zentzurik batere galdu ez duena: “Aje edo bestondo izugarria bezalakoa da gurea (...) mozkor historiko baten ondorioa”.

*Hodei berdeak* gaurkoan, beraz, Jon Alonsoren orrialderik onenetakoak bertan daudelako ustean, eta auskalo garai buelta hartako, XXI. mende hasierako euskal literaturako orrialderik onenetakoak. ■



Jon Alonso Fourcade  
idazlea  
(Iruña, 1958).